Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

| | |
|---|---|
| Erref/Ref: | **2025/76S/BASES** |
| Proz/Proc: | **Elaboración, Gestión de la Convocatoria y Concesión de Subvenciones** |
| **Behargintza** | |

Diru-laguntzei buruzko araudia aintzat hartuta,

Considerando la normativa en materia de Subvenciones,

Leioako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra aintzat hartuta

Considerando la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa,

Leioako Udaleko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa eta horri dagokion kreditua egokia eta nahikoa dela aintzat hartuta,

Considerando el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa y la existencia de crédito adecuado y suficiente al respecto,

Behargintza Sailaren txostena aintzat hartuta, ebazpen honen zio moduan baliatu dena, dekretua proposatutakoarekin bat dator eta,

Considerando el informe del Área Behargintza, que sirve de motivación a la presente resolución, la cual adopta el acuerdo en el sentido en aquél propuesto,

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 f) artikuluak eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 10.4 artikuluak, besteak beste, ezarritako eskuduntzak erabiliz, honako hau

En ejercicio de la competencia establecida entre otros por los arts. 21.1 f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, y 10.4 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones

Udalaren esku-hartzeak ikuskatu du proposamena, data honetan: 17/11/2025 , erreferentzia-zk.: 2025/1967 eta emaitza:
Fiscalización de conformidad.

La propuesta ha sido fiscalizada por la intervención municipal en fecha 17/11/2025, con nº de referencia 2025/1967 y con resultado Fiscalización de conformidad.

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 f) artikuluak eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 10.4 artikuluak, besteak beste, ezarritako eskuduntzak erabiliz, honako hau **XEDATZEN DUT**:

En ejercicio de la competencia establecida entre otros por los arts. 21.1 f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, y 10.4 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, **DISPONGO:**

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 15704543547322520775 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

Lehenik.- 2025eko ekitaldian kontratazioarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak Enplegua Sustatzeko Egindako Tokiko Ekintzetarako laguntza deialdiaren esparruan deialdia eta berariazko oinarri arautzaileak onartzea, eranskinean islatzen den edukiarekin baita horretarako espedientean dauden eskaera-ereduak ere.

Primero.- Aprobar la convocatoria y las bases específicas reguladoras de las ayudas a la contratación en el marco de la convocatoria de Acciones Locales de Promoción de Empleo de Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo durante el ejercicio 2025, con el contenido que se transcribe en el anexo, así como los formularios al efecto que constan en el expediente.

Bigarrenik.- Dagokion arloei ebazpenaren berri ematea, Egoitza Elektronikoan eta Gardentasunaren Atarian argitaratzeko, eta nahitaezko informazioa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalera bidaltzea.

Segundo.- Dar cuenta de la resolución a las áreas para la publicación oportuna en Sede Electrónica, y Portal de Transparencia y remitir la información preceptiva a la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

Hirugarrenik.- Ebazpenaren berri eman, Kontuhartzailetza eta Kontabilitate sailera.

Tercero.- Dar cuenta de la resolución al área de Intervención y Contabilidad.

**2025eko EKITALDIAN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZEN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAK ENPLEGUA SUSTATZEKO EGINDAKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZA DEIALDIAREN ESPARRUAN.**

**BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE AYUDAS A LA CONTRATACIÓN EN EL MARCO DE LA CONVOCATORIA DE ACCIONES LOCALES DE PROMOCIÓN DE EMPLEO DE LANBIDE-SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO DURANTE EL EJERCICIO 2025**

Leioako Udalak, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiarekin bat etorriz, enplegua sortzen eta lurralde-kohesioa sustatzen laguntzen duten administrazioek sustatutako deialdietan parte hartzen du, eta, besteak beste, laguntza ekonomikoa ematea du helburu, tokiko enpresek Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak ohiko merkatuan kontrata ditzaten errazteko, toki-erakundeek berek – haien mendeko erakundeak barne – abian jartzen eta gauzatzen dituzten jarduketen bidez.

El Ayuntamiento de Leioa, alineado con la Estrategia Vasca de Empleo 2030, participa de las convocatorias promovidas por las diferentes administraciones que contribuyen a generar empleo y fomentar la cohesión territorial, teniendo como objetivo, entre otros, proporcionar apoyo económico para facilitar la contratación de personas desempleadas e inscritas como demandantes de empleo en Lanbide, en el mercado ordinario por parte de las empresas locales, mediante las actuaciones que pongan en marcha y ejecuten las propias entidades locales, incluidas las entidades dependientes de las mismas.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendari nagusiak 2025eko uztailaren 15eko Ebazpenaren bidez argitaratu zuen 2025eko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdia (2025eko uztailaren 31ko EHAA,

La convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción del empleo para el ejercicio 2025, publicada mediante Resolución de 15 de julio de 2025 por el Director General de Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo (BOPV nº144 de 31 de

144. zk.), eta toki-entitateei laguntzak ematea aurreikusten du, enplegua sortzeko proiektuak abian jartzeko eta enpresei kontratazioko dirulaguntzak emateko.

**1. artikulua.- DEIALDIAREN HELBURU ETA XEDEA:**

Deialdi honen xedea da laguntza ekonomikoak arautzea, tokiko enpresek lan-merkatu arruntean kontrata ditzaten Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden eta Leioako udalerrian erroldatuta dauden langabeak.

Laguntza hauek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendari nagusiaren 2025eko uztailaren 15eko Ebazpenaren esparruan sartzen dira (2025eko uztailaren 31ko EHAA, 144. zk.). Ebazpen horren bidez, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntzak arautzen dituzten oinarriak eta 2025eko ekitaldirako deialdia argitaratu ziren.

Deialdiaren helburua da udalerriko langabeen enplegagarritasuna hobetzea, aukera-berdintasuna sustatzea eta toki-eremuan kalitatezko enplegu egonkorra sortzen laguntzea.

**2. artikulua.- ERAKUNDE ONURADUNEN ETA KONTRATATUTAKO PERTSONEN BETEKIZUNAK:**

2.1. ERAKUNDE ONURADUNAK:

Onuradun izan daitezke Leioako udalerrian lantokia eta jarduera ekonomikoa duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.

Kontratazio horiek ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

a) Lanaldi osoko kontratu mugagabearen modalitatearen bidez formalizatu ahal izango dira.

b) Leioako Udalak kontratu mugagabeen etengabeko jarduera-aldia gutxienez 12 hilabetekoa dela egiaztatu eta ziurtatuko du.

c) Kontratatutako pertsonek langabezian eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda eta alta emanda egon beharko dute kontratua hasi aurreko

julio de 2025) contempla la concesión de ayudas a entidades locales con el propósito de poner en marcha proyectos dirigidos a la creación de empleo y la concesión de subvenciones a empresas para la contratación.

**Artículo 1.- OBJETO Y FINALIDAD DE LA CONVOCATORIA:**

El objeto de la presente convocatoria es regular la concesión de ayudas económicas destinadas a facilitar la contratación, en el mercado ordinario de trabajo, de personas desempleadas inscritas como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo y empadronadas en el municipio de Leioa, por parte de empresas locales.

Estas ayudas se enmarcan en la Resolución de 15 de julio de 2025 del Director General de Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo (BOPV nº 144, de 31 de julio de 2025), por la que se publican las bases reguladoras de ayudas para acciones locales de promoción de empleo y su convocatoria para el ejercicio 2025.

La convocatoria tiene como finalidad mejorar la empleabilidad de las personas desempleadas del municipio, fomentar la igualdad de oportunidades y favorecer la creación de empleo estable de calidad en el ámbito local.

**Artículo 2.- REQUISITOS DE ENTIDADES BENEFICIARIAS Y PERSONAS CONTRATADAS:**

2.1. ENTIDADES BENEFICIARIAS:

Podrán adquirir la condición de beneficiarias las personas físicas o jurídicas, de naturaleza privada, con centro de trabajo y actividad económica en el municipio de Leioa.

Dichas contrataciones deberán tener las siguientes características:

a) Se podrán formalizar mediante la modalidad de contrato indefinido a jornada completa

b) El Ayuntamiento de Leioa verificará y certificará la duración del período de actividad continuada de los contratos indefinidos al menos 12 meses.

c) Las personas contratadas deberán estar desempleadas e inscritas y de alta como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo el día anterior al del

egunean.

d) Kontratatutako pertsonak Leioako udalerrian erroldatuta egon beharko du eta legezko bizilekua izan beharko du.

e) Kontratazioak 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean formalizatu beharko dira.

f) Kontratazioak eginda egon beharko dira toki-erakundeak dirulaguntza ebazten duen unean.

g) Kontratazioek enplegu-sorrera garbia ekarri beharko dute berekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede den langilea lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan enpresak batez beste duen langile kopuruarekiko. Kontratazioaren egunean, kontratu berriak batezbesteko hori handitzea ekarri behar du. Baldintza hori betetzeko, ez dira kontuan hartuko bidezko diziplinazko kaleratzeengatik, dimisioagatik, heriotzagatik, desgaitasunagatik, adinagatiko erretiroagatik, lan-denboraren borondatezko murrizketagatik, ezintasun iraunkor osoagatik, absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik azkendutako kontratuak.

h) Ordezkapena: kontratua arrazoi justifikatuengatik amaitzen bada (probaldia ez gainditzea, borondatezko baja, bidezko kaleratzea, heriotza edo ezintasuna), enpresak gehienez 15 egun naturaleko epean ordeztu ahal izango du langilea.

Ez dira diruz lagunduko:

a) Enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duenaren, zuzendaritza-karguak dituztenen edo sozietatearen forma juridikoa duten enpresetako administrazio-organoetako kideen ezkontidearekin, ondorengoekin eta bigarren mailara arteko (hori barne) odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko senideekin egindako kontratuak.

b) Enpresa berak pertsona bera kontratatzea, aurreko deialdietan diruz lagundu bada.

**3. artikulua.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA; MODUA ETA EPEA:**

*3.1. LEKUA ETA FORMA*

inicio del contrato.

d) La persona contratada deberá estar empadronada y con residencia legal en el municipio de Leioa

e) Las contrataciones deberán estar formalizadas entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2025

f) Las contrataciones deberán estar realizadas en el momento de la resolución de la subvención por parte de la entidad local.

g) Las contrataciones deberán suponer creación neta de empleo sobre la plantilla media total existente en la empresa en los 6 meses inmediatamente anteriores a la incorporación de las personas cuyo contrato se subvencione. A fecha de contratación, el nuevo contrato ha de suponer un incremento sobre dicha media. A los efectos del cumplimiento de este requisito, no se tendrán en consideración los contratos que se hayan extinguido por despidos disciplinarios procedentes, dimisión, muerte, discapacidad, jubilación por edad, reducción voluntaria del tiempo de trabajo, incapacidad permanente total, absoluta o gran invalidez de las personas trabajadoras.

h) Sustitución: en caso de extinción del contrato por causas justificadas (no superación del periodo de prueba, baja voluntaria, despido procedente, fallecimiento o incapacidad), la empresa podrá sustituir a la persona trabajadora en un plazo máximo de 15 días naturales.

No serán objeto de subvención:

a) La contratación del/a cónyuge, descendientes y demás parientes que tengan relación de parentesco por consanguinidad o afinidad, hasta el segundo grado inclusive, con la persona empresaria o con quienes tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o sean miembros de los órganos de administración de las empresas que revistan la forma jurídica de sociedad.

b) La contratación por la misma empresa de una misma persona si ha sido subvencionada en convocatorias anteriores.

**Artículo 3.- LUGAR, FORMA Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES:**

*3.1. LUGAR Y FORMA*

Dirulaguntza-eskabideak eredu ofizialaren araberakoak izango dira, eta bitarteko telematikoen bidez aurkeztu beharko dira Leioako Udalaren egoitza elektroniko honetan: **https://udaletxean.leioa.eus**. edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein bitarteko erabiliz.

*3.1.1. ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK*

Erakunde eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Eskaera formalizatua, I. eranskineko ereduaren arabera.
2. Erantzukizunpeko adierazpena, II. eranskinaren arabera.
3. Diruz lagunduko den kontratuaren xede den langilea lanean hasi aurreko sei hilabeteetan alta emanda dauden langileen batez besteko plantillaren txostena.
4. Kontratatutako pertsonaren egiaztagiriak; hala badagokio, deialdian adierazitako kolektiboetako kide izatearen ziurtagiria.

*3.1.2. ADMINISTRAZIOAREN ESKU DAUDEN BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO INFORMAZIOA*

Aurkeztu beharreko dokumentuak Leioako Udalak dituenean, ez da beharrezkoa izango berriz aurkeztea, betiere zein sailetan eta noiz aurkeztu ziren zehazten bada, bost urte baino gehiago igaro ez badira agiriok aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik eta aldaketarik izan ez badituzte.

Leioako Udalak, eskuragarri dauden datu-bitartekaritzako sistemen bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden interesdunen datuei buruz, bai eta diru-laguntza administratiboki izapidetzeko eskatzen den beste edozeini buruz ere, horretarako inprimakietan adierazitakoaren arabera. Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria honako hauetan zehazten da: pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan, non aitortzen baita herritarrek eskubidea

Las solicitudes de subvención se ajustarán al modelo oficial y deberán presentarse exclusivamente por medios electrónicos a través de la Sede electrónica del Ayuntamiento de Leioa: **https://udaletxean.leioa.eus**. del Ayuntamiento de Leioa, o por cualquiera de los medios señalados en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

*3.1.1. DOCUMENTACIÓN A APORTAR CON LA SOLICITUD*

Las entidades solicitantes deberán aportar la siguiente documentación:

1. Solicitud formalizada conforme al modelo del Anexo I.
2. Declaración responsable conforme al Anexo II.
3. Informe de plantilla media de trabajadores en alta en los seis meses inmediatamente anteriores a la incorporación de la persona cuyo contrato se subvenciona.
4. Documentación acreditativa de la persona contratada; certificado de pertenencia a los colectivos indicados en la convocatoria, en su caso.

*3.1.2. INFORMACIÓN ACREDITATIVA DEL CUMPLIMIENTO DE REQUISITOS EN PODER DE LA ADMINISTRACIÓN*

Cuando los documentos que hay que presentar estuvieran en poder del Ayuntamiento de Leioa, no será necesario volver a presentarlos, siempre y cuando se haga constar la fecha y la dependencia en la que fueron entregados, que no haya transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan, y que los mismos no hayan sufrido modificación alguna.

El Ayuntamiento de Leioa, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la subvención, de acuerdo lo señalado en los formularios al efecto. El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 6 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas y en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1

dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko, bai eta beste edozein administraziok egindakoak ere. Hori dela eta, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak dituzten dokumentuak edo ziurtagiriak eskatzeari utziko zaio, betiere interesdunak [edo haren ordezkariak] datu horiek erabiltzearen aurka egiten ez badu; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Leioako Udalak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu. Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duen bezala, administrazioek lankidetzan jardun behar dute datu-trukearen inguruan, eta haien esku dauden herritarrei buruzko datuak eman behar dituzte.

de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, así como la demás legislación aplicable. Es por ello por lo que se dejarán de solicitar documentos o certificados que contengan datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada [o su representante] no se oponga al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes. Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible el Ayuntamiento de Leioa podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación. Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el Artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno de la Intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

Ofizioz, betekizun/informazio hauek egiaztatu eta/edo espedientean sartuko dira, salbu eta interesdunak berariaz kontrakoa adierazten badu:

- Pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa
- Banku-kontuaren zenbakiaren titulartasuna egiaztatzea.
- Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria, udal-diruzaintzarekiko betebeharrak barne.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin egunean dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (BDNS) erregistratutako herritar, enpresa edo erakunde batentzako dirulaguntzak jasotzeko indarreko desgaikuntzen zerrenda.
- EAEko Dirulaguntzen Erregistro Orokorrean erregistratuta dagoen herritar, enpresa edo erakunde bati emandako dirulaguntzak eta laguntza publikoak.

De oficio se verificará y/o incorporará al expediente, salvo manifestación expresa en contra por parte del interesado, los siguientes requisitos/información:

- Identificación de la persona física o jurídica
- Verificación de la titularidad del número de cuenta bancaria
- Justificación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias, incluidas las obligaciones ante la Tesorería municipal.
- Justificación de estar al corriente del pago con la Tesorería General Seguridad Social,
- Listado de las inhabilitaciones vigentes para percibir subvenciones para un/a ciudadano/a, empresa o entidad registrada en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS).
- Subvenciones y ayudas públicas concedidas a un/a ciudadano/a, empresa o entidad registrada en el Registro General de Subvenciones de la CAE (RGS).

Jarduera bererako dirulaguntzaren eskabidea aldi berean beste edozein erakunde publiko edo pribaturen aurrean aurkeztu bada, Leioako Udalean egindako eskabidean horri buruzko berariazko adierazpena jaso beharko da, finantzaketa-eskabidea

En el caso de haberse presentado paralelamente solicitud de subvención para la misma actividad ante cualquier otro organismo, público o privado, la solicitud ante el Ayuntamiento de Leioa deberá incluir manifestación expresa en tal sentido, con

zein erakunderi aurkeztu zaion eta eskatutako edo, hala badagokio, jasotako zenbatekoa adierazita.

indicación de la institución o instituciones ante las que se haya presentado solicitud de financiación, así como con expresión de la cuantía solicitada o, en su caso, recibida

Udalak, kasu zehatz bakoitza kontuan hartuta, egokitzat jotzen duen beste edozein dokumentazio osagarri eskatu ahal izango dio eskatzaileari, aurkeztutako proiektu osoa baloratzeko.

El Ayuntamiento podrá, en atención a cada caso concreto, requerir a la persona solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración de conjunto del proyecto presentado.

*3.1.3. OSORIK EZ DAUDEN EDO AKASTUNAK DIREN ESKABIDEAK:*

Aurkeztutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osatu gabe badago edo konpon daitekeen beste akatsen bat badu, eskatzaileari eskatuko zaio gehienez 10 egun balioduneko epean zuzentzeko, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

*3.1.3. SOLICITUDES INCOMPLETAS O DEFECTUOSAS:*

En el caso de que la solicitud presentada o la documentación adjuntada sea incompleta o adolezca de algún otro defecto subsanable, se requerirá al solicitante para que proceda a su subsanación en el plazo máximo de 10 días hábiles, a contar desde el siguiente a la notificación del requerimiento, indicándole que de no hacerlo así, se le tendrá por desistido de su solicitud.

*3.2. EPEA:*

Eskabideak deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko otsailaren 28ra bitartean aurkeztu ahal izango dira.

Eskabideak aipatutako epetik kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira, bestelako izapiderik egin gabe.

*3.2. PLAZO:*

Las solicitudes se podrán presentar desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia hasta el 28 de febrero de 2026.

La presentación de las solicitudes fuera de los plazos mencionados dará lugar a la desestimación de las mismas sin más trámite.

**4. artikulua.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK**

Kontratazioko bost laguntza emango dira guztira, honako ezaugarri hauekin:

A. Gehienez ere 8.000 euroko laguntza bat, langabe bati lanaldi osoko lan-kontratu mugagabea formalizatzeagatik.

   Laguntza horren azken zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 75, enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

B. Bi laguntza, gehienez 8.800 eurokoak, emakume langabeei lanaldi osoko lan-kontratu mugagabe bakoitza formalizatzeagatik.

**Artículo 4.- CUANTÍA DE LA SUBVENCIÓN Y GASTOS SUBVENCIONABLES**

Se concederán un total de cinco ayudas a la contratación con las siguientes características:

A. Una ayuda, por un importe máximo de 8.000 euros, por la formalización de un contrato de trabajo indefinido a jornada completa a una persona desempleada.

   La cuantía final de esta ayuda no podrá superar en ningún caso el 75 % de los costes salariales anuales de la persona contratada, incluyendo la cotización por todos los conceptos a la Seguridad Social con cargo a la empresa contratante.

B. Dos ayudas por un importe máximo de 8.800 euros por la formalización de cada contrato de trabajo indefinido a jornada completa a mujeres desempleadas.

Laguntza horien azken zenbatekoak ezin izango du kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 100 gainditu, enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

Era berean, kolektibo hauetako pertsonak kontratatzeko laguntzak ematea aurreikusten da:

- DSBE/BGDSren titularrak edo onuradunak
- 35 urtetik beherako pertsonak.
- Iraupen luzeko langabeak: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan edo beste enplegu-zerbitzu publiko batzuetan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak, kontratazio-dataren aurreko 540 egunetan 360 egunez gutxienez.
- 55 urtetik gorako pertsonak.

Horretarako, laguntza hauek emango dira:

C. Gehienez ere 10.000 euroko laguntza bat, adierazitako kolektiboetako bateko langabe bati lanaldi osoko lan-kontratu mugagabea formalizatzeagatik.

D. Gehienez ere 11.000 euroko laguntza bat, adierazitako kolektiboetako bateko emakume langabe bati lanaldi osoko lan-kontratu mugagabea formalizatzeagatik.

C eta D motako laguntzen azken zenbatekoak ezin izango du kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 100 gainditu, enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

Diruz lagundutako lan-kontratu mugagabeak aurreneko hamabi hilabeteetan iraungitzen badira, itzuli egin beharko da emandako dirulaguntza. Nolanahi ere, kontratua iraungitzeko arrazoia probaldia ez gainditzea, langileak lana bere borondatez uztea, bidezkotzat jotako kaleratzea edo kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasuna izan bada, lan-kontratuak iraun duenaren proportzioan murriztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

La cuantía final de estas ayudas no podrá superar en ningún caso el 100 % de los costes salariales anuales de la persona contratada, incluyendo la cotización por todos los conceptos a la Seguridad Social con cargo a la empresa contratante.

Asimismo, se contempla la concesión de ayudas para la contratación de personas pertenecientes a los siguientes colectivos

- Personas perceptoras titulares o beneficiarias de RGI/IMV
- Personas menores de 35 años.
- Personas desempleadas de larga duración: se entiende por éstas, aquellas personas desempleadas e inscritas como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo u otros Servicios Públicos de Empleo, al menos 360 días en el periodo de los últimos 540 días previos a la fecha de la contratación.
- Personas mayores de 55 años.

Para ello, se concederán las siguientes ayudas:

C. Una ayuda por un importe máximo de 10.000 euros por la formalización de un contrato de trabajo indefinido a jornada completa a una persona desempleada y perteneciente a alguno de los colectivos indicados.

D. Una ayuda por un importe máximo de 11.000 euros por la formalización de un contrato de trabajo indefinido a jornada completa a una mujer desempleada y perteneciente a alguno de los colectivos indicados

La cuantía final de las ayudas tipo C y D no podrán superar en ningún caso el 100 % de los costes salariales anuales de la persona contratada, incluyendo la cotización por todos los conceptos a la Seguridad Social con cargo a la empresa contratante.

La extinción de los contratos de trabajo indefinidos subvencionados en los primeros doce meses de contrato, supondrá el reintegro de la subvención concedida, salvo que tal extinción sea debida a la no superación del periodo de prueba, cese voluntario, despido declarado procedente o por muerte o invalidez de la persona contratada, en cuyo caso se reducirá el importe de la subvención en proporción a la duración efectiva del contrato de trabajo.

Erakunde eskatzaileen artean banatu beharreko gehieneko zenbatekoa berrogeita sei mila eta seiehun eurokoa (46.600 €) izango da, eta gastua aurrekontu-aplikazio honen kargura egingo da: 00502; 24105; 4801700; Ekonomia Sustapena eta Enplegua; Enplegua Sustatzea eta Enpresa Garapena; Langabeak kontratatzeko laguntzak. Baliabide publikoen kudeaketa eraginkorraren mesedetan, deskribatutako tipologietako bati dagokion kreditua agortzen ez bada, beste laguntza bat estaltzeko erabili ahal izango da.

Zenbateko hori handitu ahal izango da, beharrezko baliabideen aurrekontu-zuzkidura egin ondoren.

Laguntza-lerro hori ez dago jasota Leioako Udalaren 2024-2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendari nagusiaren 2025eko urriaren 13ko Ebazpena ikusita. Ebazpen horren bidez, dirulaguntza bat eman zitzaion Leioako Udalari, kontratazioko laguntzetarako 2. motako jarduketetarako, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2025eko ekitaldirako laguntzen deialdiaren babesean, berrogeita sei mila eta seiehun eurokoa (46.600,00 euro), apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1m) eta s artikuluak emandako ahalmenak erabiliz. Hala ere, alkate jaunak dirulaguntza horren deialdia onartu du, eta hurrengo osoko bilkuran horren berri eman du, 2024-2027 DPEn sartzeko igorriz.

**5. artikulua.- EMAKIDARAKO PROZEDURA:**

Diru-laguntza hauen emakida prozedura norgehiagokaren bidezkoa da.

**6. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:**

Aurkeztutako eskabideak baloratzeko, kontuan hartuko da deialdian aipatutako kolektiboren batekoa izatea. Irizpide hori baremazteko, beharrezkoa izango da kolektibo horietako batekoa izatea ez izatea sartzeko baldintza, 4. artikuluan ("dirulaguntzaren zenbatekoa eta diruz lagundu daitezkeen gastuak") deskribatutako laguntzen tipologiaren arabera; izan ere, kasu horretan, sartzeko baldintzatzat hartuko da, eta ez baloratu beharreko merezimendutzat.

La cantidad máxima a distribuir entre las entidades solicitantes será de cuarenta y seis mil seiscientos euros (46.600 €), realizándose el gasto con cargo a la aplicación presupuestaria; 00502; 24105; 4801700; Promoción Económica y Empleo; Fomento de Empleo y Desarrollo Empresarial; Ayudas a la contratación de personas desempleadas. En aras a una gestión eficiente de los recursos públicos, en el supuesto de que no se agotara el crédito correspondiente a alguna de las tipologías descritas, podrá ser destinado a la cobertura de otra ayuda.

Esta cuantía podrá ser ampliada con un importe adicional previa dotación presupuestaria de los recursos necesarios.

Si bien esta línea de ayudas no aparece recogida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa 2024-2027, vista la Resolución de 13 de octubre de 2025, del Director General de Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo por la que se concede una subvención al Ayuntamiento de Leioa, para actuaciones Tipo 2, ayudas a la contratación, al amparo de la convocatoria de ayudas para Acciones Locales de Promoción de Empleo para el ejercicio 2025, por importe de cuarenta y seis mil seiscientos euros (46.600,00 euros) en uso de las facultades otorgadas por el artículo 21.1 m y s de la Ley 7/1985, de 2 de abril, por el Sr. Alcalde se aprueba su convocatoria, dando cuenta en el siguiente pleno que se celebre y remitiendo a su inclusión en el PES 2024-2027

**Artículo 5.- PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN:**

El procedimiento de concesión de las presentes subvenciones es el de concurrencia competitiva.

**Artículo 6.- CRITERIOS OBJETIVOS DE OTORGAMIENTO DE LA SUBVENCIÓN:**

Para la valoración de las solicitudes presentadas se tomará en cuenta la pertenencia adicional a alguno de los colectivos referidos en la convocatoria. Para la baremación de este criterio será necesario que la pertenencia a uno de estos colectivos no constituya el requisito de acceso de acuerdo con la tipología de ayudas descritas en el artículo 4 "cuantía de la subvención y gastos subvencionables", ya que en este caso se considerará requisito de acceso y no mérito a valorar.

10 puntu emango dira talde hauetako kide izateagatik (40 puntu gehienez):

-  DSBE/BGDSren titularrak edo onuradunak
-  35 urtetik beherako pertsonak.
-  Iraupen luzeko langabeak: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan edo beste enplegu-zerbitzu publiko batzuetan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak, kontratazio-dataren aurreko 540 egunetan 360 egunez gutxienez.
-  55 urtetik gorako pertsonak.

Puntuazioen baturan berdinketa gertatuz gero, kontratazioaren aurreko unean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-eskatzaile gisa altan denbora gehien daraman pertsona kontratatzen duen erakundearen alde egingo da. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa publikoa egingo da berdindutako eskabideen artean.

**7. artikulua.- INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA**

Aurkeztutako eskabideak baloratzeko Instrukzio-organoa Behargintzaren zuzendari dihardduen udal-langilea izango da. Horrelakorik ezean, dagokion teknikaria izendatuko da.

Eskaerak alkatetzaren dekretu bidez ebatziko dira, instrukzio-organoak proposatuta.

Deialdi honek arautzen dituen diru-laguntzak eman ahal izateko, erabakitzeko momentuan aurrekontu eta kreditu nahikoa eta egokia eduki beharko da.

Aurretiaz Leioako Udalaren diru-laguntzak lortu izana ez die eskatzaileei inolaz ere aldeko eskubiderik ematen, eta ez dira aintzat hartuko modu horretako aurrekariak emakida berrien kasuan.

Interesatuei jakinarazpena egiteko epea 10 egunekoa izango da, ebazpena egiten den egunetik aurrera. Jakinarazpena horretarako jakinarazitako posta elektroniko bidez bidaliko da.

Se otorgarán 10 puntos por pertenencia adicional a los siguientes colectivos, hasta un máximo de 40 puntos:

-  Personas perceptoras titulares o beneficiarias de RGI/IMV
-  Personas menores de 35 años.
-  Personas desempleadas de larga duración: se entiende por éstas, aquellas personas desempleadas e inscritas como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo u otros Servicios Públicos de Empleo, al menos 360 días en el periodo de los últimos 540 días previos a la fecha de la contratación.
-  Personas mayores de 55 años.

